

IRAGARPENA, Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa) botika bat zabaltzeko 64/1994 zenbakiko eskabide espedientearen berri emateko dena. 10320

IRAGARPENA, Urnietan (Gipuzkoa) botika bat zabaltzeko 61/1994 zenbakiko eskabide espedientearen berri emateko dena. 10321

ANUNCIO relativo al expediente de solicitud de apertura de Oficina de Farmacia número 64/1994 en la localidad de Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa). 10320

ANUNCIO relativo al expediente de solicitud de apertura de Oficina de Farmacia número 61/1994 en la localidad de Urnieta (Gipuzkoa). 10321

## Xedapen Orokorrak

### LEHENDAKARITZA

#### 3026

318/1994 DEKRETUA, uztailaren 28koa, Euskal Autonomi Elkartetik kanpora dauden Euskal Etxeak aitortu eta erroldatzea arautzen duena.

Euskal Autonomi Elkartetik kanpo dauden Euskal Etxe eta Gizataldeekiko harremani buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legean finkatutakoaren arabera Euskal Etxeak hartzen dira biderik egokien lez euskal gizataldekideen eta Euskal Autonomi Elarteko administrazio publikoen artean harremanak izateko. Euskaltasuna mundu bazterretan zabaltzen lan bikaina betetzen dute izaki horiek, hainbat elkarte eta ordezkatzeko modu erabiliz horretarako. Areagotu egin nahi da harreman hori lankidetzarako bide iraunkorrak ezarri.

Euskal Erakundeek eskeintzen dituzten prestazioak eskuratu ahal izateko, bai Euskal Etxeak, Federazioak zein Konfederazioak, aitortu egin beharko dira aipatutako legean ezarritako baldintzen arabera; Euskal Etxeen erroldan ere eman beharko dute euren izena, horretarako sortuta baitago.

8/1994 Legeko 5.3 eta 7.2 ataletan jasotako xedapena betetzen da dekretu honetan. Atal horietan ezartzen denez, aitormen eta erroldatze zereginetarako, arautegi bidezko garapena behar da. Hasteko, aitormenerako behar diren baldintzak jasotzen ditu, horri ekiteko prozedura arautzen du, eta bai aitortutako Euskal Etxeak informatzeko duen obligazioa eta aitormena indargabetzeko arrazoiak ere jasoko dira. Euskal Etxeak erroldatzeari buruzkoa da arauaren bigarren zatia; bere helburua, izaera, inskripzioak eta ondorioak definituko ditu, eta bai prozedura eta Erroldaren antolaketa ere.

Azkenik, azalpen fitxarako balioko duten bi eraskin gehitzen zaizkio, horko datuak errolda zentsuan sartuko direla.

Ondorioz, Lehendakaritzaren proposamenez eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1994ko uztailaren 28an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA

#### 3026

DECRETO 318/1994, de 28 de julio, por el que se regulan el Reconocimiento y Registro de los Centros Vascos ubicados fuera de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 8/1994, de 27 de mayo, de relaciones con las Colectividades y Centros Vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco, configura a los Centros Vascos-Euskal Etxeak como cauce preferente de relación entre los miembros de las colectividades vascas y las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Se trata de entes que, desde diversas fórmulas asociativas y de representación, vienen realizando una importante labor difusora de lo vasco por todo el mundo, que va a verse impulsada ahora a través de nexos estables de colaboración.

Por otro lado, los Centros Vascos, Federaciones y Confederaciones, para ser receptores de una serie de prestaciones por parte de las Instituciones Vascas, han de ser previamente reconocidos en las condiciones exigidas en la citada Ley, e inscritos en el Registro de Centros Vascos, creado con fines censales.

El presente Decreto responde al mandato contenido en los artículos 5,3 y 7,2 de la Ley 8/1994, que remiten a un desarrollo reglamentario en lo referente a reconocimiento y registro, respectivamente. Comienza por recoger los requisitos necesarios para el reconocimiento, regulando después el procedimiento para instar el mismo, la obligación de información por parte del Centro Vasco reconocido y las causas de revocación del reconocimiento. La segunda parte de la norma se refiere al Registro de Centros Vascos, definiendo su objeto y carácter, las inscripciones y sus efectos, así como el procedimiento y la organización del Registro.

Finalmente, se añaden dos Anexos a modo de fichas descriptivas cuyos datos puedan ser vertidos en el censo registral.

En su virtud, a propuesta de la Presidencia, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 28 de julio de 1994,

XEDATU DUT:

I. ATALBURUA

EUSKAL ETXEAK, ETA BAI HORIEN  
FEDERAZIOAK ETA KONFEDERAZIOAK ERE  
AITORTZEARI BURUZKOA.

1. *atala.* - Maiatzaren 27ko 8/1994 Legean jasotakoa ahalbideratzeko eta lege horretan finkatutako prestazioak modu errazean eskuratu ahal izateko, bai Euskal Etxeek eta bai horien Federazioek eta Konfederazioek ere, aldezaurreko aitormena izan beharko dute, horrela eskatzen baitu aipatutako legeko 2. atalaren 1 idazatiak eta 5.atalak.

Xede horretarako, honako helburu hauek bete behar dituzte Euskal Etxeek:

- Legez eraturako pertsona juridikoa izatea, elkar-tearen edo fundazioaren izaera izan zein beste bat.

- Diru xederik ez izatea.

- Egoitza Euskaditik kanpo izatea.

- Estatutuen helburua eta eguneroko iharduera 8/1994 Legean ezarritako xedeak lortzea izan daitezela.

2. *atala.* - 1.- Euskal Etxeak eskatuta egingo da aitormena. Legezko ordezkariak izenpetuko du eskabi-dea, dekretu honen I. eraskin lez azaltzen den ereduaren arabera. Honako hauek erantsiko zaizkio:

- Entitatea behar bezala eratu denari buruzko egiaztagiriak, kokatuta dagoeneko Estatuan indarrean dauden arauen arabera.

- Euskal Etxearen zehaztasunik adierazgarrienak jasotzen dituen fitxa, dekretu honetako II. eraskinean oharmandako moduan.

2.- Eskatutako agiriak eta eskabidea Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailera bidaliko dira (Nafarroa kalea 2, 01006 Vitoria-Gasteiz).

3. *atala.* - 1.- Euskal Etxeak aurkeztutako agiriak ikusita eta atzerrian dauden euskal gizatalde eta euskal etxeekiko harremanen alorrean aginpidea duen organuak aurkeztutako txostena ikusita, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak, dekretu honetan eskatzen diren agiri guztiak eskuratu eta bi hilabeteko gehienezko epearen barruan, aitormena egiteko erabakia hartuko du.

2.- Maiatzaren 27ko 8/1994 Legean adierazitako ondorioetarako epemugarik gabekoa izango da aitormena, baldin eta lege horretan eta dekretu honetako 6. atalean adierazitako ezestapenik gertatzen ez bada.

4. *atala.* - Gobernu organuetan eta zentruaren gaineko zereginetan izandako aldaketan berri eman behar diote aitortutako Euskal Etxeek Eusko Jaurlaritzari. Bi hilabete izango dituzte horretarako, gertatzen direnetik kontatzen hasita. II. eraskinean azaltzen den fitxa eguneratu egin beharko da eta bidali ostera ere.

5. *atala.* - Euskal gizataldeekin erakunde mailako harremanak ahalik ondoen koordinatzeko orduan inte-

DISPONGO:

CAPÍTULO I

DEL RECONOCIMIENTO DE LOS  
CENTROS VASCOS, SUS FEDERACIONES  
Y CONFEDERACIONES.

*Artículo 1.* - Al objeto de posibilitar lo previsto en la Ley 8/1994, de 27 de mayo, así como para facilitar el acceso a las prestaciones contenidas en la misma, los Centros Vascos-Euskal Etxeak, sus Federaciones y Confederaciones habrán de ser objeto de reconocimiento previo según señala el artículo 2, apartado 1, y el artículo 5 de dicha Ley.

A tal fin, los Centros Vascos deberán cumplir los siguientes requisitos:

- Ser persona jurídica legalmente constituida, con forma asociativa, fundacional o cualesquiera otras.

- No tener ánimo de lucro.

- Radicar su sede fuera del territorio de Euskadi.

- Dirigir sus fines estatutarios y su actuación ordinaria a la consecución de los objetivos fijados en la Ley 8/1994.

*Artículo 2.* - 1.- El reconocimiento será instado por el Centro Vasco, mediante solicitud firmada por su representante legal, según modelo que figura como Anexo I al presente Decreto, a la que se acompañarán:

- Documentación acreditativa de la válida constitución de la entidad según las normas en vigor del Estado en que radique.

- Ficha en la que se cumplimenten los datos identificativos del Centro en los términos recogidos en el anexo II al presente Decreto.

2.- La solicitud y la documentación requerida habrán de ser remitidas a la Presidencia del Gobierno Vasco, calle Navarra, n.º 2, 01006 Vitoria-Gasteiz.

*Artículo 3.* - 1.- A la vista de la documentación presentada por el Centro Vasco y del informe emitido por el órgano competente en materia de relaciones con las Colectividades y Centros Vascos en el exterior, el Consejo del Gobierno Vasco acordará el reconocimiento en el plazo máximo de dos meses desde la recepción de la documentación completa exigida en el presente Decreto.

2.- El reconocimiento, con los efectos señalados en la Ley 8/1994, de 27 de mayo, tendrá carácter indefinido de no producirse su revocación en los supuestos señalados en dicha Ley y en el artículo 6 de este Decreto.

*Artículo 4.* - Los Centros Vascos reconocidos estarán obligados a comunicar al Gobierno Vasco las modificaciones en la composición de sus órganos de gobierno y todos los demás aspectos de su vida social en el plazo de dos meses desde que se produzcan, remitiendo de nuevo la ficha que figura en el Anexo II con los datos actualizados.

*Artículo 5.* - El Gobierno Vasco podrá, asimismo, requerir al Centro que aporte datos referidos a sus

resgarriak izan daitezen datuak, bazkideei, iharduerei edo beste zernolako batzuei buruzkoak alegia, eska diezazkioke Eusko Jaurlaritzak Euskal Etxeari.

6. atala.- 1.- Ez baditu betetzen Euskal Etxeak maiatzaren 27ko 8/1994 Legean ezarritako helburuak, ez badu ematen zentruaren zereginetan izandako aldaketan berri edo lege horretan edo dekretu honetan jasotako obligazioei bizkarra ematen badie, indargabetu egin daiteke aitormena.

2.- Indargabetzeari ekiteko, indargabetzeak oinarri hartzen duen ziozko txostena bidali beharko du agintedun organuak; horri buruzko erabakia Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak hartuko du.

## II. ATALABURUA

### EUSKAL ETXEEN ERROLDA

7. atala.- Aitortutako Euskal Etxe, Federazio eta Konfederazio guztiak erroldatzeko sortzen da «Registro de Centros Vascos-Euskal Etxeak». Horren kudeaketa eta jarraipena Eusko Jaurlaritzan hori dagokion organuak egingo du, atzerriko Euskal Gizatalde eta Euskal Etxeekiko harremanen alorrean eskuduntza duenak hain zuzen ere.

8. atala.- 1.- «Registro de Centros Vascos-Euskal Etxeak» izaera publikoa izango du. Horren adierazgarri lez eskatzen dituen edonori eskeiniko zaizkio datuak; edo zilegizko den ziurtagiria emango da, Erroldaren edukia zehatz-mehatz egiaztatzeko bide bakar lez.

2.- Norbanako fisikoei eta erakunde publiko edo pribatu guztiek dute Erroldako datuak kontsultatzeko eskubidea. Eskubidea izango dute, baita ere, agintedun organuak ziurtagiriak eman diezazkien eta edukia buruzko agiriak erkatu diezazkien.

9. atala.- Zentsu eta publizitate ondorioak bakarrik izango ditu Erroldan izena emateak. Euskal Etxeak badaudela jakitea eta horiei buruzko datuak eguneratzea bermagarri da interesaturik egon daitezen bazkide eta beste batzuentzat. Administrazioarekiko harremanak ere erraztuko ditu eta honek dituen programez baliatzea ere bai.

10. atala.- 1.- Euskal Etxeetan alta edo baja ofiziorik hartuko da, aitortzeaz edo indargabetzeaz Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako akordiaren hurrengo hilabetean. Maiatzaren 27ko 8/1994 Legean eta dekretu honetan ezarritako eran egingo da hori.

2.- Izan daitezen aldaketan berri, dekretu honetako 4. atalean finkatutakoari jarraiki, Eusko Jaurlaritzari emango zaio; ondoren Erroldan sartuko dira noiz gertatu ziren adieraziz.

11. atala.- 1.- Euskal Etxeen Erroldan aurki daitezkeenak:

- Direktorioa, Euskal Etxeen, Federazioen eta Konfederazioen altak jasoko dituenak.

socios, actividades u otras circunstancias que resulten de interés para una mejor coordinación en las relaciones institucionales con las Colectividades Vascas.

Artículo 6.- 1.- El incumplimiento por parte del Centro Vasco de los objetivos establecidos en la Ley 8/1994, de 27 de mayo, del deber de comunicación de las modificaciones en la vida social, y de cualquiera otra obligación recogida en la citada Ley o en el presente Decreto podrá conllevar la revocación de su reconocimiento.

2.- Para proceder a la revocación, el órgano competente emitirá informe motivado en el que se fundamente la revocación, que será acordada por el Consejo del Gobierno Vasco.

## CAPÍTULO II

### DEL REGISTRO DE CENTROS VASCOS

Artículo 7.- Con objeto de censar todos los Centros Vascos, Federaciones y Confederaciones de Centros reconocidos se crea el Registro de Centros Vascos-Euskal Etxeak, cuya gestión y llevanza corresponderá al órgano del Gobierno Vasco competente en materia de relaciones con las Colectividades y Centros Vascos en el exterior.

Artículo 8.- 1.- El Registro de Centros Vascos-Euskal Etxeak tiene carácter público. La publicidad se manifestará facilitando sus datos a quien lo solicitare, o expidiendo la correspondiente certificación, como medio único de acreditación fehaciente del contenido del Registro.

2.- Toda persona física, entidad pública o privada tiene derecho a consultar los datos del Registro y a que, por el órgano competente, se le expidan certificaciones y se le compulsen documentos relativos a su contenido.

Artículo 9.- La inscripción en el Registro tendrá meros efectos censales y de publicidad. La constancia de la existencia de los Centros Vascos y la actualización de sus datos servirá de garantía para sus miembros y para terceros interesados, y de censo que facilite las relaciones con la Administración y el acceso a los programas de ésta.

Artículo 10.- 1.- Las inscripciones de alta o de baja de Centros Vascos se practicarán de oficio, dentro del mes siguiente al acuerdo del Consejo de Gobierno de reconocimiento o de revocación del mismo, respectivamente, y en la forma determinada en la Ley 8/1994, de 27 de mayo, y en el presente Decreto.

2.- Las modificaciones en la vida social, una vez comunicadas al Gobierno Vasco de conformidad con lo establecido en el artículo 4 del presente Decreto, se anotarán en el Registro con indicación de la fecha en que se hayan producido.

Artículo 11.- 1.- El Registro de Centros Vascos estará integrado por:

- Un Directorio, que recogerá las inscripciones de alta de los Centros Vascos, Federaciones y Confederaciones.

– Oharpen liburua, entitate bakoitzari dagozkion datuak bildu, antolatu eta eguneratuko dituen, dekretu honen II. eraskinean argitaratzen den fitxaren arabera.

2.– Euskal Etxe bakoitzak bere errolda zenbakia izango du, alta inskripzioan izendatuko zaiona.

Direktorioan alta edo baja hartzean eta Oharpen Liburuetan egindako mugimenduetan adierazi egin beharko dira eguna eta dagokion errolda erreferentzia.

*12. atala.*– Izenemate eta oharpenak jasoko dituen agiriak gordeta daudeneko artxiboaz gain, erroldaren zaintzaz arduratuko den organuak, bere edukiari bereonean eusteko, horiek erabiltzeko eta datutegiaz edonor baliatzeko baliagarriak izango diren tresna informatiboak izango ditu.

#### ALDIBATERAKO XEDAPENA

Maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen aldibaterako xedapenetatik lehenengoaren arabera, aldezaurreko aitormena eskatuko da, 1995eko uztailaren 3tik aurrera, Euskal Etxe, Federazio edo Konfederazioentzat, baldin eta lege honetan jasotako prestazioak eurenganatu nahi badituzte.

#### AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*– Prozedurari buruzko administrazio gaiei dagokienez, Herri-Administrazioen Lege-Jaurbidari eta Guztientzako Administrazio Ihardunbidari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea osagarria izango da dekretu honekiko.

*Bigarrena.*– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du indarra dekretu honek.

Vitoria-Gasteizen, 1994ko uztailak 28.

Lehendakaria,  
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

– Libro de Anotaciones, que reunirá y ordenará actualizados los datos correspondientes a cada entidad, según la ficha que se publica en el anexo II al presente Decreto.

2.– Cada uno de los Centros Vascos contará con un número de registro que será asignado en la correspondiente inscripción de alta.

Tanto en las inscripciones de alta o baja en el Directorio, como en los movimientos realizados en el Libro de Anotaciones se hará constancia de la fecha en que se produzcan con su correspondiente referencia registral.

*Artículo 12.*– Además del archivo donde estén custodiados los documentos que sirvan de soporte a las correspondientes inscripciones y anotaciones, el órgano encargado de llevar el Registro contará con los medios informáticos que faciliten la conservación y el uso de su contenido, así como el acceso público a su banco de datos.

#### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

De conformidad con la disposición transitoria 1.<sup>a</sup> de la Ley 8/1994, de 27 de mayo, a partir del 3 de julio de 1995 será exigido el reconocimiento previo para el Centro Vasco, Federación o Confederación que quiera acogerse a las prestaciones recogidas en dicha Ley.

#### DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*– En cuanto a materias administrativas procedimentales, la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, tendrá carácter supletorio respecto de la presente norma.

*Segunda.*– El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de julio de 1994.

El Lehendakari,  
JOSÉ ANTONIO ARDANZA GARRO.

I. ERASKINA

EUSKAL ETXEA AITORTZEKO ESKABIDEA

Euskal Etxea / Federazioa / Konfederazioa (ezabatu ez dagokiona). Izena: \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Egoitza non (helbidea-herria-eskualdea-Estatua): \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Nortasun juridikoa (elkartea, fundazioa, .....): \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

Estatutuen helburuen artean, bazkideek aditzera emandako nahia kontutan izanik, Euskadirekin harreman kulturalak, sozialak eta ekonomikoak eukitzea jasoko da; ahaztutzeke euskaldunak eurak, euskera, Euskadiren historia eta kultura. Beste helburu batzuk (baldin badituzte): \_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

ESKATZEN DU:

Euskal Autonomi Elkarkez kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanei buruzko maiatzaren 27ko 8/1994 Legean eta hori garatzen duen .../1994 Dekretuan ezarritako eran, Euskal Etxe lez aitortua izan dadila.

Vitoria-Gasteizen, 199.... ..

Iz.:  
(legezko ordezkaria)

II. ERASKINA

AZALPEN FITXA

A.- EUSKAL ETXEAREN EZAUGARRIAK:

Euskal Etxea

Federazioa

Herria

Konfederazioa

Izena

Nortasun juridikoa  
(elkartea, fundazioa, ...)

Helbidea

Posta kodea

Telefonoa

/ Fax

Telex

B.- BALTZUAREN DATUAK:

- Eraketa eguna  
(eskriturak edo bestelako egiaztagiriak erantsi)
  
- Ihardunerako lurralde eremua
  
- Bazkide kopurua
  
- Espainiar nazionalitatea
- Beste nazionalitate bat
  
- Ondarea  
(dituen diru baliabideak eta baliabide materialak)
  
- Zuzendaritza Batzordea eta Gobernuko beste organu batzuk  
(lehendakaria, diruzaina eta idazkariaren izenak eman behintzat)
  
- Legezko ordezkaria  
(ahalmena erantsi)
  
- Bazkide zerrenda  
(Zerrendan adierazi beharrekoak: izena, abizenak, jaioteguna eta jaiolekua, nazionalitatea eta hizkuntzak)

C.- EUSKAL ETXEA K DITUEN LOKAL ETA ZERBITZUEN AZALPENA:

Baltzuaren ekipamenduak: (Detailea: ezaugarriak)

Edaritegia  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Jatetxea  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Joko aretoak  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_

Kultura ekipamenduak: (Detailea: ezaugarriak)

Liburutegia  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Ekintza aretoa  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Ikusentzutezkoak  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Kirolak  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_

Ohizko iharduerak: (Detailea: ezaugarriak)

Euskarazko klaseak  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Musika eta dantzak  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Hitzaldiak eta irakaskuntza  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Kirolak  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Zinea, antzerkia eta erakusketak  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 Argitalpenak  \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_

Bestelakoak (detailea: ezaugarriak)

\_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_  
 \_\_\_\_\_



ANEXO I

SOLICITUD DE RECONOCIMIENTO DE CENTRO VASCO - EUSKAL ETXEA

El Centro Vasco / Federación / Confederación (táchese lo que no proceda), bajo la denominación \_\_\_\_\_

ubicado en (dirección-localidad-región-Estado) \_\_\_\_\_

con personalidad jurídica de (Asociación, Fundación.....) \_\_\_\_\_

entre cuyos fines estatutarios, según voluntad manifestada por los socios integrantes, figura el mantenimiento de lazos culturales, sociales y económicos con Euskadi, sus gentes, su historia, su lengua y su cultura. Otros fines (en su caso): \_\_\_\_\_

SOLICITA:

El reconocimiento como Centro Vasco-Euskal Etxea, en los términos y con el alcance establecidos en la Ley 8/1994, de 27 de mayo, de relaciones con las Colectividades y Centros Vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y el Decreto /1994, que lo desarrolla.

En ..... , a ..... de ..... de 199.....

Fdo.:  
(El representante legal)

## ANEXO II

## FICHA DESCRIPTIVA

## A.- IDENTIFICACIÓN DEL CENTRO VASCO:

Centro	<input type="checkbox"/>		
Federación	<input type="checkbox"/>	País	<input type="text"/>
Confederación	<input type="checkbox"/>		
Denominación	<input type="text"/>		
Personalidad jurídica (asociación, fundación, ...)	<input type="text"/>		
Dirección		Código Postal	<input type="text"/>
Teléfono	<input type="text"/>	/ Fax	<input type="text"/>
		Télex	<input type="text"/>

B.- DATOS SOCIALES:

- Fecha de constitución   
(adjuntar escrituras u otro documento acreditativo)
  
- Ambito territorial de actuación
  
- N.º de socios
  
- Con nacionalidad española
- Con otra nacionalidad
  
- Patrimonio social  
(en su caso, recursos económicos y materiales con los que cuenta)
  
- Junta Directiva y otros Órganos de Gobierno  
(indicar, al menos: presidente, tesorero, secretario)
  
- Representante Legal  
(adjuntar poder)
  
- Lista de Socios  
(adjuntar listado con indicación del nombre y apellidos, fecha y lugar de nacimiento, nacionalidad e idiomas)

C.- DESCRIPCION DE LOS LOCALES Y SERVICIOS QUE INTEGRAN EL CENTRO:

Equipamientos Sociales: (Detalle: características)

Bar	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Restaurante	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Salas de juego	<input type="checkbox"/>	_____
		_____

Equipamientos Culturales: (Detalle: características)

Biblioteca	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Salón de actos	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Audiovisuales	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Deportivos	<input type="checkbox"/>	_____
		_____

Actividades Habituales: (Detalle: características)

Clases de euskera	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Música y danzas	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Conferencias y enseñanza	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Deportivas	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Cine, teatro y exposiciones	<input type="checkbox"/>	_____
		_____
Publicaciones	<input type="checkbox"/>	_____
		_____

Otros: (Detalle: características)

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_

\_\_\_\_\_